

Antolamendu judizialari buruzko online ikastarorako deialdia

Argitalpen-data: 2025/02/17

Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak *Antolamendu Judizialari* buruzko ikastaroa eskaintzen du, on-line modalitatean, lan-poltsetan daudenentzat bereziki zuzenduta.

Baldintzak:

1. Ikastaroa Justiziako Administrazioiko Kudeaketa, Izapideketa eta Laguntza Judizialeko kidegoetako lan-poltsan daudenei eta justizia administrazioan **lan esperientzia ez dutenei** bideratuta dago.

2. Automatrikula, hurrengo estekaren bitartez egingo da:

- [Antolamendu Judiziala online izen ematea](#) 

Modu honen bidez aurkeztutako eskabideak bakarrik hartuko dira kontuan.

3. **Automatrikulatzeko epea** argitaratzen denetik, **otsailaren 25ko goizeko 08:00etara arte** izango da.

4. Martxoaren 10ean, posta elektronikoko bat bidaliko zaie ikastarorako onartu direnei. Erabiltzailea, pasahitza eta ikastaroan nola sartu adieraziko zaie posta horretan.

5. **300 plaza** eskaintzen dira. Hautatzeko, bitartekoen lan-poltsako hurrenkerak izango du lehentasuna.

6. Ikastaroa **martxoaren 10ean hasiko da, 14:00etan, eta martxoaren 31an amaituko da, 08:00etan**. Epe horretan ikasleak online sar daitezke ikastarora.

7. Ikastaroa moduluz osatuta dago. Modulu bakoitza amaitzeko, autoebaluazio-test bat egin behar da. Test horri esker, ikasleak zenbat aurreratu duen jakingo du, eta moduluak behar beste errepikatzeko aukera izango du, modulua behar den moduan ulertu eta ikasi arte.

8. Azterketa egiteko eskubidea izateko, ikasleak **ikastaroko test guztiak egin beharko ditu**.

9. Ikastaroa amaituta, **apirilaren 3tik (14:00etan) 11ra (goizeko 8:00etan) bitartean**, ikastaroaren **azterketa (online)** egiteko epea irekiko da. Ikastaroa gaindituta, ordezkapenak egiteko deitu ahal izango zaie lan-poltsetan daudenei.